



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 3a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—COVID-19a dela-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2020ko martxotik abendura bitarte egin duen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**COVID-19a dela-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak
2020ko martxotik abendura bitarte egin duen kudeaketari buruzko
fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak COVID-19a dela-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2020ko martxotik abendura bitarte egin duen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-20/CCO-00016).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**COVID-19a dela-eta Nafarroako
Foru Komunitateko Administrazioak
2020ko martxotik abendura bitarte
egin duen kudeaketari buruzko
fiskalizazio-txostena,
Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Nola kudeatu duen COVID-19a Nafarroako Foru Komunitateak (4. or.).
 - II.1. COVID-19aren kudeaketari aplikatu beharreko arau-esparrua (4. or.).
 - II.2. COVID-19ari aplikatutako kudeaketa-prozedurak (4. or.).
- III. Helburuak, norainokoa eta mugak (8. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (10. or.).
 - IV.1. COVID-19aren kudeaketari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren kuantifikazioa (11. or.).
 - IV.2. Legezketasunari buruzko auditoria (18. or.).
 - IV.3. Eraginkortasunari eta efizientziari buruzko auditoria (21. or.).
 - IV.4. 2020ko abenduaren 31tik aurrerako gertaerak (21. or.).
 - IV.5. Amaierako konklusioa eta gomendioak (22. or.).
1. eranskina. COVID-19aren kudeaketari Nafarroan aplikatu beharreko oinarritzko arau-esparrua (23. or.).

I. SARRERA

Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia izendatu zuen 2020ko urtarrilaren 31n deklaraturako osasun publikoko larrialdia, COVID-19ak eragindakoa. Izan ere, gaitzaren hedapena herrialdeetako osasun publikoaren kontrako arriskua zen, eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen zuen. Horiek horrela, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko.

Egoera berezi horren ondorioz ohiz kanpoko eta presako hainbat neurri hartu ziren osasun publikoko arrazoiengatik. Neurri horiek gastu esanguratsua eragin zieten administrazio publikoei, eta halaxe jarraitzen dute gaur egun ere.

Testuinguru horretan, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko ekainaren 8ko bilkuran, EH Bildu Nafarroa taldeak hala eskaturik, erabaki zuen fiskalizazio-txostena eskatzea legebiltzarrari, *“Nafarroako Gobernuak 2020ko martxoaren 1etik ekainaren 30era bitartean Covid-19aren krisiari lotuta emandako dirulaguntzen eta obrak, hornidurak, zerbitzuak eta langileak kontratatzeke egindako prozedura publikoen eraginkortasunari, efizientziari eta legezketasunari buruz”*.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2020. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoretzako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2020ko azarotik 2021eko otsailera bitartean.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne: bigarrenen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (hemendik aurrera, NFKA) COVID-19a kudeatzeko egindako lanaren alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak lan honen helburuak, norainokoa eta mugak biltzen ditu; eta laugarrenak erdietsitako konklusio eta gomendioak azaltzen ditu. Txostenak, gainera, eranskin bat dauka, osasun krisi honen kudeaketari aurre egiteko onetsitako arau garrantzitsuenak biltzen dituena.

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsonen jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko kontseilaria.
- Hezkuntza Departamentuko kontseilaria.
- Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilaria.
- Osasun Departamentuko kontseilaria.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilaria.
- PAGNAko kudeatzailea.
- O-NOZeko kudeatzailea.

Ezarritako epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu NFKAko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

II. NOLA KUDEATU DUEN COVID-19A NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAK

II.1. COVID-19AREN KUDEAKETARI APLIKATU BEHARREKO ARAU-ESPARRUA

Osasun publikoko larrialdiaren testuinguruan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma egoera deklaratu zuen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

Errege dekretu horrek ezarri zuen Estatu zela agintari eskuduna alarma egoeraren ondorioetarako, baina administrazio bakoitzak beretzat gordeko zituela bere zerbitzuen ohiko kudeaketan legeria indardunak ematen dizkion eskumenak, beharrezkotzat jotzen zituen neurriak ezartzeko.

Eskumen hori baliaturik, NFKAk hainbat arau onetsi ditu alarma egoera deklaratu zenetik. Txosten honen 1. eranskinean arau horien zerrenda dago.

Eranskinean ageri denez, presako neurriak hartuz joan ziren COVID-19aren osasun krisiak sortutako inpaktuari erantzuteko, arlo hauek ukitu zituztenak, besteak beste:

Antolaketa-unitatea	Arloak
O-NOZ	Langileen kontratazioa Zentro pribatuetako azpiegiturak eta langileak baliatzea Langileak lanera itzultzea (sindikalak eta erretiratuak) Langileen ordainsariak (COVID produktibitate-osagarria, aparteko orduak)
Eskubide Sozialetako Departamentua	Zentro eta zerbitzu soziosanitarioetako langileak Langileen kontratazioa Itun sozialak Errenta bermatua etetea zenbait kasutan
Nafarroako Zerga Ogasuna	Zergaldiko epeak etetea Zerga zorrak geroratzea salbuespenez
Departamentu guztiei aplikatzea	Kontratazio prozedurak eta mandatuak Kontabilizazioa eta aurrekontu kudeaketa Dirulaguntzak 100 milioiko funtsa sortzea
Lurralde Kohesiorako Departamentua	25 milioiko funts berezia
Garapen Ekonomiko eta Enpresaria- leko Departamentua	Autonomoentzako laguntzak Turismo eta ostalaritza sektoreentzako laguntzak

Aipatu arau-esparruak Nafarroari eragin dioten alderdi oinarritzkoenak biltzen ditu. Izan ere, kontuan izan behar da legegintzako lana trinkoa eta korapilatsua izan dela alarma egoera deklaratu zen unetik; onetsitako arauak eragin nabarmena izan dute jardueraren sektore askotan, baina gogoan izan behar da alarma egoera bukatu eta osasun krisiak sortzen ahal dituen ondorioak desagertu arte iraunen dutela indarrean.

II.2. COVID-19ARI APLIKATUTAKO KUDEAKETA-PROZEDURAK

Aurrekontu-egozpena

Martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legeak, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 5. artikuluan ezartzen du koronabirusaren aurkako borrokarako ohiz kanpoko neurriak berariaz sortutako partiden kargura finantzatuko direla, partida horiek zabalgarriak izanen direla eta "COVID-19" izena emanen zaiela.

Jarduketa administratibo bakoitzaren hasieran, gastua aurrekontuko zein partidari egotziko zaion erabakitzen da, eta horrek bide ematen dio, aurrekontu-betearazpenaren hurrenez hurreneko faseetan zehar, betebeharraren aitortpenari.

Hala ere, gerta liteke gastuaren izaera berezia ez izatea osasun krisiari berariaz erantzuteko abiarazitako jarduketa baten ondorioa, baizik eta lehendik baden kudeaketa-tresna baten esparruan egitea gastu hori. Horrek ekarriko luke kontabilitateko zuzenketak egin behar izatea aurre-

kontu-betearazpenaren zenbatekoaren gainean; betiere, jasorik utzi behar da egiten den zuzenketak lotura duela bidegabeki egotzitako zenbatekoa sorrarazi zuen jarduketa administratiboarekin, hartara egiaztatu ahal izan dadin COVID-19 partidetan bildutako gastuen egozpena zuzena dela.

Egindako ohiz kanpoko gastuen izaera eta norainokoa zuzen agerrarazi behar izatea ez da soilik Aurrekontuei buruzko Foru Legearen agindua, aitzitik, Estatuak aurrekontuegonkortasunaren arloko araudian ezarritakoaren babesean egindako informazioerrekerimenduari ere erantzuten dio.

Arrazoi horrengatik, COVID-19aren kudeaketarekin lotura duen eta gastua dakarren jarduketa oro erabat identifikaturik gelditu behar da.

Diru-sarreraren kasuan, aldiz, ez dago osasun krisiari aurre egiteko aitortutako eskubideak labur identifikatzeko legezko betebeharririk.

Onetsitako neurriak eta langileak kontratatzeko prozedura

Hauek izan ziren Administrazio Publikoko langile guztientzat ezarritako neurri nagusiak, edozein izanik ere haien lanpostua eta araubide juridikoa:

- Iraupen edo izaera bereziko zerbitzuak egiteko agindu ahal izatea.
- Lanpostuari dagozkion eginkizunez bestelako zereginak esleitzea.
- Mugigarritasun geografikoko neurriak (joan-etorrien gastuak ordainduta, bost kilometrotik gorakoak izanez gero).
- Langilea atxikita dagoen unitatea ixten bada, langileari beste unitate organiko batean errefortzu zerbitzuak emateko deitu ahalko zaio.
- Lanaldiaren eta atsedenaldeen inguruko neurriak hartu ahalko dira, eta jadanik emandako baimen, lizentzia eta abarrekoak bertan behera utzi, baita guardia-txandetatik salbuesten dituztenak ere.
- Bermatu beharko da aste oso bateko atsedenaldeen batura ez izatea 70 ordu baino gutxiagokoa. Lanaldien arteko gutxieneko atsedenaldia hamar ordukoa izanen da, eta salbuespen gisa txanda-aldaketan zazpi ordukoa izan ahalko da, betiere aste osoan eguneko batez besteko atsedenaldia hamar ordukoa bada.

Bestalde, hauek izan ziren kontratazio prozedurekin lotutako neurri nagusiak:

- Aldi baterako kontrataziorako zerrendetan daudenei deitu ahalko zaie administrazio araubidean kontratatzeko Administrazioaren edozein arlotan. Ahal dela, kontratazio zerrenda indardunetako lehentasun ordena errespetatuko da. Salbuespenez, organo eskudunek pertsona egoikienei eskaini ahalko diete administrazio araubideko kontratazioa.
- Sindikatuetakoa liberatuek borondatez eskatu ahalko dute zerbitzura itzultzea, baina horrek ez du ekarriko haien ordezkoei, halakorik bada, lana uztea.
- Zerbitzu aktiboko jarduna luzatzeko aukeraren etendura kentzea. Horrenbestez, lanean jarraitu ahalko da 65 urte bete ondotik.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat:
 - a) Erretiroa hartu duten osasun arloko profesionalak, 70 urte bete ez badituzte, zerbitzu aktibora itzuli ahalko dira.
 - b) Gripegatik errefortzu kontratuak eta osasun kontingentziarako planekoak abuztuaren 30era arte luzatu ziren; gero epe hori abenduaren 31ra arte luzatu zen.
 - c) Dei guztiak presako prozeduraren bidez egingen dira, eta ondorioz ez da erantzuteko eperik emanen.

- d) Lanpostuak betetzeko beharrian guztiak egiturazko kontratazioen bidez aseko dira, eta eten eginen dira iraupen luzeko kontratuetarako deiak (lanpostu hutsak, erretiroak...).
 - e) Eten eginen dira oporrak eta baimenak, zerbitzuaren beharrentzat.
 - f) Salbuespenez eta aldi baterako, autonomia-erkidegoek kontratatu ahalko dituzte hauta-probak egin eta gainditu arren posturik lortu ez duten Osasun Zientzietako profesionalak, bai eta Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean lortutako espezialista titulua duten osasun arloko profesionalak ere.
 - g) Autonomia-erkidegoek baimena dute mediku eta erizainen lekualdaketak egiteko honako eremu hauen artean: ospitaleetatik oinarritzko osasun laguntzaren eremura; oinarritzko osasun laguntzatik erreferentziako edo kanpainako ospitaleetara; eta Osasun Sistema Nazionalak probintzian dituen laguntza-dispositiboen artean. Atxikipen horiek mediku gabezia konpondu arte iraunen lukete, gehienez ere 12 hilabete, hasiera batean. Epe horrek hiru hilabeteko luzapenak izanen lituzke.
- Etxeko zaintzaile profesionalen kontratazioa: ez dira bete beharko ahaidetasunaren eta lanbide-kualifikazioaren inguruko baldintzak pertsona horiek kontratatu ahal izateko; 18 urte izatea eta afiliatuta egotea besterik ez da eskatuko.

COVID-19aren kudeaketarekin lotutako ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioarako prozedurak eta inbertsioak

Osasun krisi honekin zerikusia duten kontratu publikoak errazago prestatu eta lizitatzeko, berriazko arauak eman ziren Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eremuetan, larrialdiko espedienteetarako prozedurak antolatze aldera.

Nafarroan, Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 140. artikulua larrialdiko espedienteen izapidetzeari heltzen dio honako hau esanez:

“...1. Hondamen egoerak, arrisku larriko egoerak edo segurtasun publikoa arriskuan jartzen duten beharrianak direla-eta administrazioak berehala jardun behar duenean, kontratazio espedienteak honako izapidetze berezia izanen du:

- a) *Eskumena duen kontratazio organoak, administrazio espedienterik izapidetu beharrik izan gabe, gertaturikoa konpontzeko edo sorturiko beharri aurre egiteko beharrezkoa dena egitea agin dezake eta libreki kontratatu ere, xede osoa edo zati bat, foru lege honetan ezarritako formazko betekizunak errespetatu behar izan gabe, are kreditu aski izateko eskakizuna bera ere.*
 - b) *Salbuespeneko araubide honetako jarduketak egin ondoren, kontratazio organoak horiek eta horietarako gastua onetsiko ditu, horien larrialdiko izaera teknikoki eta juridikoki justifikatu eta Kontu-hartzailetzak fiskalizazioa egin ondoren. Larrialdiko espedientearen bitartez eginiko kontratuak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko dira beti.*
- 2. Administrazioak proposaturiko xedea betetzeko behar diren gainerako jardueren inguruko presatazioak, larrialdikoak ez direnak, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz kontratatuko dira...”*

Larrialdiko prozedura horixe erabili da Nafarroan, non apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legeak, koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituenak, 15. artikuluan berriaz ezarri baitzituen honako neurri hauek, erabili beharreko prozedura argitzeko:

- COVID-19ak sortutako premiei erantzuteko egiten diren kontratu eta mandatu guztiei larrialdiko izapidetzea aplikatuko zaie, eta ez da alde aurretik egin beharko larrialdiaren justifikazio tekniko edo juridikorako txostena. Gero bai, egin beharko da txosten hori.
- COVID-19aren gastuei aurre egiteko behar diren funtsen ordainketa-aginduak justifikatzeke egiten dira.
- Gaikuntza ematen zaie kontratazio organoei eginak dituzten kontratuak aldatzeko, larrialdiko izapidetzea baliatuz, COVID-19a dela-eta premiak sortu ahala.

- Larrialdiko prozeduraren bidez izapidetzen diren espedienteak salbuetsirik egonen dira aurretiazko kontu-hartzea egitetik fase guztietan —barne hartzen direla justifikatzeko ematen diren ordainketa-aginduak—, baina ez dira salbuetsiko etengabeko kontrol finantzariotik.

Neurri horiek kontuan izanda, NFKAk larrialdiko prozeduraren bidez izapidetu zituen COVID-19a zela-eta egindako kontratu gehienak, eta, beraz, ez zuten aurretiazko fiskalizaziorik izan; orain espedienteak formalizatzen ari dira eta Kontu-hartze Zerbitzua haiek berrikusten ari da.

Kontratuak etetea

Uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretuak, koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen dituenak, 2. artikuluan, kontratuak eteteko aukera arautzen du:

- Ezartzen du eten eginen direla alarma egoera deklaratzeko unean indarra duten segidako zerbitzu eta hornidura kontratuak, osasun krisiaren ondoriozko egoeran haiek betetzea ezinezkoa bada.

Etendako kontratuen ardura duten kontratistek kalte-ordaina eskatu ahalko dute. Kontratazio organoak eskaera aztertuko du eta, bidezkoa bada, kalte-ordaina emanen die.

- Obra eta zerbitzuen emakidarako kontratuen kasuan, emakidadunak kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko eskubidea du. Aldez aurretik hala eskatu behar du eta inguruabarrak frogatu behar ditu.

- Obra kontratu publikoak, aurrera eraman ezin badira, eten ahalko dira harik eta exekuzioari berriz ekiteko modua izan arte, eta horrek ez du ez zigorrik ez kontratuaren suntsiarazpenik ekarriko.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentutik jasotako eskaera kontuan hartuta, honako hauek izan dira lan honen helburuak:

- COVID-19aren kudeaketaren inguruan 2020ko martxotik 2020ko abendura bitartean izandako gastuak eta diru-sarrerak kuantifikatu eta berrikustea.
- COVID-19aren kudeaketaren inguruan 2020ko martxotik abendura bitartean izandako gastuen eta diru-sarreraren legezketasunaren fiskalizazioa egitea, honako honi buruzko iritzia eman ahal izateko: NFKAk eta bere erakunde autonomoek bitarte horretan egindako langile, ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioak eta inbertsioak eta emandako dirulaguntzak bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.
- Kontratazioaren eraginkortasuna eta efizientzia aztertzea, horrelako ebaluazioa egiteko informazioa eskuragarri dagoen kontratazioetan.
- Gure lanaren norainokoak 2020ko martxotik 2020ko abendura bitarteko aldia hartzen du, eta honako informazio hau aztertu dugu:
 - Aipatu epealdian COVID-19a kudeatzearekin zerikusia duten aurrekontuko partidak.
 - COVID-19aren kudeaketari aplikatu beharreko araudia.
 - COVID-19a kudeatzeko erabilitako ondasun eta zerbitzuak eta langileak kontratatze prozedurak.
 - O-NOZek, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak (PAGNA) eta Hezkuntza Departamentuak COVID-19aren krisiari aurre egiteko langileak hartzeko egindako kontratuak.

Kontratu horiek aztertzeaz gain, COVID produktibitateagatik 2.298 pertsonari ordaindutako zenbatekoa berrikusi dugu. Gastu hori 3,69 milioikoa da, aurrekontuan aitortua 2020ko abenduarren 31n; hona hemen xehakaturata:

Jasotako zenbatekoa	Pertsona kop.
< 1.000	1.385
1.001, 5.000	739
5.001, 10.000	137
10.000, 15.000	22
15.000, 20.000	9
20.000, 30.000	5
>30.000	1
Pertsonak, guztira	2.298

- COVID-19aren kudeaketarekin lotutako ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratuak eta inbertsioak

NFKAko departamentu guztiei informazioa eskatu genien, COVID-19arekin lotutako kontratu guztiak bidal zituzten, eta horietan honako gastu hauek aztertu ditugu:

	Kontzeptuak	Betearazitako zenbatekoa 2020-12-31n
2. kap. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Maskara kirurgikoak	2.220.000
	FPP2 maskarak	1.232.800
	Osasun itunak	8.585.045
6. kap. Inbertsioak	Zentro soziosanitarioen kudeaketa	4.508.315
	Chromebook-ak erostea	5.039.827

- COVID-19aren kudeaketarekin lotutako transferentzia arrunt eta kapital-transferentzia guztiak onartzeko erabilitako prozedurak. Halaber, azterketa sakonagoa egin diegu honako transferentzia hauei:

	Kontzeptuak	Betearazitako zenbatekoa 2020-12-31n
4. kap. Transferentzia arruntak	Autonomoentzako laguntzak	24.029.700
	Hiriarteko bidaiari garraio erregularreko erabilera orokorreko zerbitzuen emakida-kontratuertarako laguntzak	1.363.969
	Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza zentroentzako transferentzia arruntak	2.884.342
	Etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzak	747.510
	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako dirulaguntzak	980.773
	45 urtetik gorakoentzako dirulaguntzak ¹	562.150
	Eguneko zentroen kontratuengatik kalte-ordainak	202.455

- COVID-19aren kudeaketa zela-eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari egindako zazpi milioiko ekarpena, aurrekontuaren 8. kapituluaren (Finantza-aktiboak) jaso.
- Nafarroako Azoka Eremua (Refena) okupatzeagatik ordaindutako gastua.

Jarraian, gure lanaren irismena mugatu duten alderdiak azalduko ditugu:

- Egiaztatu dugu badirela COVID-19arekin lotutako gastuak jaso gabe daudenak hala identifikatutako aurrekontu partidetan. Alabaina, txosten hau idazten ari den garaian NFKA akats horiek zuzentzen ari da zenbait kasutan, esaterako O-NOZeko langileen ordainsarien kasuan.

Bestalde, egiaztatu dugu COVID-19 partidetan badirela gastu batzuk hor egon behar ez luketenak, errenta bermatuari dagokion zenbatekoa, esaterako; kasu horretan, Eskubide Sozialerako Departamentuak maiatzean eta ekainean ez zien deus ere egotzi COVID-19 partidei, eta orduetik aurrera prestazioaren onuradun berriei zegokien gastua erregistratu zuen partida horietan, prestazioaren arrazoia COVID-19a zen ala ez kontuan hartu gabe.

Ezin dugu zenbatetsi aurreko paragrafoetako gertaeren eragina. Beraz, gure txostenean ematen ditugun zenbakiak gutxi gorabeherakoak dira, eta COVID-19 gisa identifikatutako partidetan kontabilizatu den zenbatekoari dagozkio. Beraz, ez dute zehazten COVID-19a kudeatzeko egiaz egindako gastua; hala ere, uste dugu aldea ez litzatekeela esanguratsua izanen.

- Diru-sarreraren zenbatespenari dagokionez, badira finantza-pasiboekin lotutako aurrekontu partidak COVID-19 gisa identifikatu ez direnak, baina agian zati batez helburu horretarako erabili direnak, eta ezin dugu zati horren zenbatekoa zehaztu.

- COVID-19ari aurre egiteko egindako kontratuei buruz NFKAko departamentuek emandako erantzunean ez da azaltzen zenbat kontratu diren. Batzuetan eskariez ari dira, beste batzuetan fakturez edo kontratuez.

Horregatik, ezin da zehaztu zenbat kontratu egin ziren. Gainera, kasu askotan, informazioa eskatu zenean kontratazio espedienteak formalizatzen ari ziren. Gure txostenean, formalizatu eta Kontratazioaren Atarian argitaratutako larrialdiko espedienteen guztizko kopuruari buruzko datuak ematen ditugu, izapidetzeko modu hori erabili baita kasu gehien-gehienetan.

- Osasun itunen kasuan soilik aztertu ahal izan ditugu eraginkortasuna eta efizientzia. Alor horretan O-NOZeko Kostuaren Kontrol eta Analisisako Zerbitzuak azterketa sakona egin zuen COVID-19a duten pazienteentzako osasun laguntzaren kostua kalkulatzeko; kostu horiek erabili ziren osasun itunetako zerbitzuen kontratazioan aplikatu behar ziren tarifak zehazteko; gainerako jarduketetan ez dago aski informazio jasota konklusioak atera ahal ditzagun.

¹ Aurrekontuko partida hau ez zen COVID partida gisa sailkatu, baina egiaztatu dugu inguruabar horrek eragin zuela gastuaren zati bat; zehazki, 144.444 euro 2020ko abenduaren 31n.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna

NFKAko departamentuen eginbeharra da gastuak zuzen esleitzea COVID-19a kudeatzeko sortutako aurrekontuko partidei; eta bermatzea aplikatu beharreko araudiarekin bat datozela egiten diren kontratazio guztiak eta ematen diren dirulaguntzak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da, Kontu-hartzailtza Nagusiaren bidez, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezartzeko erantzukizuna duena, departamentuek aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da COVID-19aren kudeaketari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak kuantifikatzea, COVID-19aren kudeaketari dagozkion kontratazio eta dirulaguntzen legezkotasunari buruzko iritzia ematea, eta kontratazioen eraginkortasuna eta efizientzia aztertzea, ebaluazio hori egin ahal zaien kasuetan.

Horretarako, gure fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoen fiskalizaziorako oinarriko printzipioen arabera, eta, zehazkiago, ISSAI-ES 400 eta 300 arauak jarraituz, zeinek legeria betetzei buruzko fiskalizazioak eta auditoria operatiboak arautzen baitituzte, hurrenez hurren. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat izatea ekitaldian egindako jarduerak zein finantzen egoera-orrietan islatutako informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateari buruz.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzei buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak aurrekontuko partidetan gastua egotz dezan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta aztertutako aurrekontu-partiden aurkezpene ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du gure iritzari eusteko, gastuen kuantifikazioan izan ezik, txosten honen III. atalean azaldu dugun bezala.

IV.1. COVID-19AREN KUDEAKETARI DAGOZKION GASTUEN ETA DIRU-SARREREN KUANTIFIKAZIOA

IV.1.1. COVID-19aren kudeaketarekin lotutako gastuak

Kontuan izanik II.2 atalean deskribatzen den aurrekontu-egozpenerako prozedura, COVID-19a kudeatzeko hartutako neurriek 224,97 milioiko gastua eragin dute 2020ko abenduaren 31ra arte. Zenbateko hori data horretara arteko aurrekontu-gastu osoaren ehuneko bost da.

Gastuak honela banatzen dira kapituluz kapitulu:

Gastu-kapitulua	Aitortutako betebeharrak	Guztizko ABGen ehunekoak
1. Langileria	44.805.218	20
2. Ond. eta zerb. gastu arruntak	70.484.065	31
3. Finantza-gastuak	78.275	0
4. Transferentzia arruntak	72.058.514	32
6. Inbertsioak	14.828.507	7
7. Kapital-transferentziak	15.715.221	7
8. Finantza-aktiboak	7.000.000	3
Guztira	224.969.800	100


Zenbateko nabarmenena transferentzia arruntetako gastuena da, 72,06 milioi (guztizkoaren ehuneko 32), eta ondoren ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntena eta langileria-gastuena, hurrenez hurren 70,48 milioi eta 44,81 milioi (guztizko gastuaren ehuneko 31 eta 20).

Hona hemen nola banatu den gastua departamentuen artean:

Departamentua	Aitortutako betebeharrak
Osasuna	100.670.276
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	42.539.783
Lurralde Kohesioa	26.383.821
Hezkuntza	18.263.125
Eskubide Sozialak	17.290.231
Ekonomia eta Ogasuna	8.988.487
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Erald. Digitala	4.488.860
Landa Garapena eta Ingurumena	3.270.521
Lehendakaritza, Berd., Funtzio Publ. eta Barnea	1.753.820
Lurr. Ant., Etxeb., Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	758.079
Kultura eta Kirola	389.390
Migrazio Politikak eta Justizia	143.406
Erakundeekiko Harremanak	30.000
Guztira	224.969.800

Osasun Departamentuak gastatu du gehien, 100,67 milioi, eta ondoren Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak, 42,5 milioi, eta Lurralde Kohesioak, 26,38 milioi.

Departamentu bakoitzak guztizko gastuan hartzen duen ehunekoak honako grafiko honetan ageri da:



Osasun Departamentuaren gastua ehuneko 45 da. Ondotik daude Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua (ehuneko 19), Lurralde Kohesioa (ehuneko 12) eta Eskubide Sozialetakoa eta Hezkuntzakoa (ehuneko zortzina). Gainerako departamentuek ez dute gaindizten guztizkoaren ehuneko bost.

Langileria-gastuak

Langileria-gastuak 44,81 milioikoak ziren 2020ko abenduaren 31n. Hona hemen xehakaturik kontzeptu ekonomikoaren arabera:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak	Guztizko AB-Gen ehunekoak
Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	23.491.003	52
Gizarte Segurantzza	8.169.143	18
Ordezkatzeetarako kontratatutako langileen ordainsariak	4.679.688	10
Produktibitate-osagarria	3.731.565	8
Jaiegunak	1.620.852	4
Gaueko lana	888.153	2
Txandakako lana	657.709	1,5
Norberaren ordainsariak (gradua, antzintasuna, etab.)	622.161	1,4
Guardiak	409.953	0,9
Langile finkeen ordainsariak	251.468	0,6
Aparteko orduak	158.633	0,4
Sakabanatze geografikoarengatik osagarria	64.994	0,1
Kapitazio-osagarria	50.215	0,1
Lanbide-karreraren ordainsariak	6.918	-
Lanpostu erreserbatuak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak	2.763	-
Guztira, oro har	44.805.218	100

Hauek izan ziren gastu handieneko kontzeptu ekonomikoak: aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak, 23,49 milioi (guztizko gastuaren ehuneko 52); Gizarte Segurantzarekiko gastua, 8,17 milioi (guztizkoaren ehuneko 18); ordezkatzearako kontratatutako langileen gastua, 4,68 milioi (guztizkoaren ehuneko 10); eta produktibitate-osagarriarena, 3,73 milioi (guztizkoaren ehuneko 8). Gainerako kontzeptuek ez dute gainditzen guztizko gastuaren ehuneko bost.

Laburbilduz, gastu gehienaren helburua izan zen langileak kontratatzea, osasun krisiari aurre egiteko sortuz joan ziren beharrak ase ahal izateko.

Hona hemen 2020ko martxoan alarma egoera deklaratu zenetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean NFKAren esparru bakoitzean egindako kontratuen kopurua:

	O-NOZ	Hezkuntza Dep.	PAGNA	Guztira
Administrazio-kontratua	4.905	1.189	584	6.678
Asteburuko zaintzailea	-	-	106	106
Aldi baterako irakasle lan-kontratuduna lanaldi osoarekin	-	7	-	7
Aldi baterako irakasle lan-kontratuduna lanaldi partzialarekin	-	5	-	5
Mediku egoiliarra	-	-	1	1
Guztira	4.905	1.201	691	6.797

NFKAk 6.797 kontratu egin zituen, horietatik ehuneko 72 O-NOZen, ehuneko 17 Hezkuntza Departamentuan eta gainerako ehuneko 11 Eskubide Sozialetako Departamentuan. Kontratu kopuru horretan sartzen dira bai kontratu berriak (lanaldi osoak nahiz lanaldi partzialekoak), bai lanaldia luzatuz aldatutako kontratuak eta ordezkatzek; Hezkuntza Departamentuaren kasuan, ikasturterako errefortzu kontratuak ere sartu dira.

O-NOZen barnean, hau izan zen kontratuen kopurua unitate organiko bakoitzean:

Unitate organikoa	Kontratu kop.
Nafarroako Ospitalegunea	2.578
Oinarrizko Osasun Laguntza	1.134
Tuterako Reina Sofia Ospitalea	708
Tuterako Oinarrizko Osasun Laguntza	83
Lizarrako García Orcoyen Ospitalea	155
Lizarrako Oinarrizko Osasun Laguntza	50
Osasun Mentala	120
Behin-behineko zentroak	52
Zerbitzu Zentralak	25
Guztira	4.905

Kontratuen ehuneko 53 Nafarroako Ospitaleguneako beharretarako egin ziren (2.578), ehuneko 23 Oinarrizko Osasun Laguntzarako izan ziren (1.134), ehuneko 16 Tuterako Osasun Barrutirako (Oinarrizko Osasun Laguntza barnean hartuta, 791 kontratu guztira), eta ehuneko lau Lizarrako Osasun Barrutirako (Oinarrizko Osasun Laguntza barnean hartuta, 205 kontratu guztira).

O-NOZen kontratatutako pertsonen eginkizunak honako hauek izan ziren:

Eginkizuna	Kontratu kop.
Erizaina	2.135
Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria	1.256
Zeladorea	431
Administraria	336
Zerbitzu orokorretako langilea	224
Osasun larrialdietako teknikaria	112
Laborategiko teknikari espezialista	112
Gizarte langilea	45
Erradiologiako teknikari espezialista	53
Fakultatibo espezialistaren ondokoa	32
Osasun hezitzailea	33
Oinarrizko Osasun Laguntzako medikua	29
Farmaziako teknikaria	22
Sukaldaria	11
Erizain espezialista	11
Larrialdietako medikuaren ondokoa	10
Beste batzuk	53
Guztira	4.905

Kontratuen 44k erizaintzako eginkizuna zuten, eta ehuneko 26k erizaintzako zaintza lagungarriekin zuten zerikusia. Ehuneko bederatzi izan ziren zeladore lanpostuak betetzeko kontratuak, eta ehuneko zazpi administrazio lanetarako kontratuak.

NFKAk egindako kontratuetan ez da kasu guztietan kontratu bakoitzeko pertsona desberdin bat kontratatu, zenbait pertsona behin baino gehiagotan kontratatu baitituzte, behean agertzen den bezala:

	O-NOZ	Hezkuntza Departam- tua	PAGNA	Guztira
Kontratu kop.	4.905	1.201	691	6.797
Pertsona kop.	2.234	918	255	3.407

Hona hemen mota bakoitzeko zenbat kontratu egin diren, lan harremanaren arabera:

	O-NOZ	Hezkuntza Departam- tua	PAGNA	Guztira
Egiturazko kontratua	4.004	533	476	5.013
Ordezkatzeetarako kontratuak	901	668	215	1.784
Guztira	4.905	1.201	691	6.797

Egindako kontratu guztien ehuneko 73 egiturazkoak izan ziren, eta ehuneko 27 ordezkatzeetarako egin ziren.

Honako hau izan zen kontratuen iraupena jarduketa-eremuaren arabera:

Kontratuen iraupena	Kontratuen kopurua			
	O-NOZ	Hezkuntza Dep.	PAGNA	Guztira
Urtebete baino gehiago	1	-	-	1
Sei hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago	24	524	2	550
Hiru eta sei hilabete bitarte	1.716	16	15	1.747
Bi eta hiru hilabete bitarte	479	17	10	506
Hilabete eta bi hilabete bitarte	1.299	50	305	1.654
15 eta 29 egun bitarte	412	91	74	577
Sei eta 14 egun bitarte	530	281	111	922
Bi eta bost egun bitarte	292	198	135	625
Egun bat	152	24	39	215
Guztira	4.905	1.201	691	6.797

Kontratuen ehuneko 26 hiru eta sei hilabete bitarteko aldirako egin ziren, ehuneko 24 hilabete eta bi hilabete bitarteko aldirako, eta ehuneko 14k sei eta 14 egun bitarteko iraupena izan zuten.

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunta

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunta 70,48 milioikoa zen 2020ko abenduaren 31n. Hona hemen xehakaturik kontzeptu ekonomikoaren arabera:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak	Guztizko ABGen ehunekoak
Kontsumitzeko osasun alorreko materiala	23.492.140	33
Produktu kimikoak eta laborategikoak	14.017.539	20
Osasun laguntzako itunak	8.585.045	12
Gizarte zerbitzu bermatuen kudeaketa	4.646.102	6,6
Instrumentuak eta tresna txikiak	3.228.254	4,6
Garbiketarako eta txukuntasunerako materiala	2.363.003	3,4
Farmakoak	1.996.050	2,8
Garbiketa eta txukuntasun zerbitzuak	1.789.775	2,5
Bestelako gastu askotarikoak	1.591.396	2,3
Publizitatea eta propaganda	1.120.399	1,6
Hirugarrenek egindako bestelako lanak	1.042.478	1,5
Bestelako hornidura osagarriak	1.021.540	1,4
Eskola garraioa	761.435	1,1
Osasun garraioa	635.294	0,9
Informatika zerbitzuak	630.461	0,9
Programen eta lizentzien errentamenduak	497.182	0,7
Elikadura	428.043	0,6
Hondakinen kudeaketa	327.338	0,5
Telekomunikazio zerbitzuak	296.406	0,4
Jantziak	265.305	0,4
Segurtasun zerbitzuak	257.861	0,4
Gas medikoak	205.458	0,3
Azterlanak eta lan teknikoak	190.778	0,3
Bestelako garraio gastuak	156.543	0,2
Altzarien eta bestelako gauzen errentamenduak	153.556	0,2
Ikuztegi-zerbitzuak	136.447	0,2
Bestelako kontzeptuak (13 kontzeptu)	648.237	0,9
Guztira, oro har	70.484.065	100

Gastuaren ehuneko 33 kontsumitzeko osasun alorreko materiala erosteko egin zen (23,49 milioi); ehuneko 20, produktu kimiko eta laborategikoetarako (14,02 milioi); ehuneko 12, osasun laguntzako zerbitzuak ituntzeko (8,59 milioi); eta ehuneko zazpi, gizarte zerbitzu bermatuak kudeatzeko (4,65 milioi). Gainerako kontzeptu ekonomikoek, banaka hartuta, guztizko gastuaren ehuneko bostetik beherako zenbatekoa izan zuten.

Gastu horiek berekin ekarri zuten kontratuak formalizatzea edo lehendik zeudenak aldatzea, txosten honen II.2 atalean azaldutako irizpideei jarraituz. Espediente horietatik ia guztiak larrialdiko prozeduraren bidez izapidetu zirenez, ezin dugu kalkulatu zenbat kontraturi dagokien adierazitako gastua. Izan ere, oraindik ez daude denak formalizatuta eta Kontratazioaren Atarian argitaratuta.

Horren ildotik hau adierazi behar dugu: 2021eko martxoaren 1ean, aipatu atarian dagoen informazioaren arabera, COVID-19aren kudeaketa zela-eta 2020ko martxotik 2021eko martxora bitartean larrialdiko prozeduraz izapidetu ondoren formalizatu eta argitaratu diren kontratazio espedienteak 96 dira, eta guztira 14,88 milioi egiten dute (BEZik gabe), aipatutako gastua baino zenbateko nabarmen txikiagoa. Bestalde, aipatu aldian COVID-19a dela-eta ohiko prozeduraren bidez izapidetutako bi kontratu daude jasorik, eta guztira 1,80 milioi egiten dute.

Transferentzia arruntengatiko gastuak

Transferentzia arruntengatiko gastua 72,06 milioikoa zen 2020ko abenduaren 31n. Hona hemen xehakaturik kontzeptu ekonomikoaren arabera:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak	Guztizko AB-Gen ehunekoa
Transf. arruntak beste enpresa pribatu batzuei	39.915.850	55,5
Toki entitateentzako transferentzia arruntentzako funtsa	11.500.000	16
Transf. arruntak familia eta banakoei	7.732.911	11
Transf. arruntak enpresa publikoei	4.345.222	6
Transf. arruntak nekazaritza enpresei	2.935.943	4
Transf. arruntak unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza zentroei	2.884.342	4
Bestelako transf. arruntak toki entitateei	1.626.529	2
Transf. arruntak Nafarroako Unibertsitate Publikoari	750.000	1
Transf. arruntak beste erakunde publiko batzuei	269.292	0,5
Transf. arruntak fakultate eta unibertsitate-eskolei	80.150	-
Transf. arruntak irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuei	15.000	-
Transf. arruntak merkataritza enpresei	3.275	-
Guztira, oro har	72.058.514	100

Transferentzien ehuneko 55 (39,92 milioi) enpresa pribatuentzako laguntzak izan ziren, eta horietatik 24,03 milioi autonomoei eman zitzaizkien; toki entitateek guztizko gastuaren ehuneko 18 jaso zuten, eta guztizko gastu horren barnean nabarmentzen dira toki entitateei diru-bilketa urriagatik laguntza ez-finalista emateko aparteko funtsa, 10,50 milioikoa (13/2020 Foru Legearen bidez onetsi zen), eta bidaiarien hiri garraioaren defizita arintzeko milioi bat euro; bestalde, gastuaren ehuneko 11 familia eta banakoengana bideratu zen, errenta bermatura gehienbat (kontzeptu horretan jarritako 7,73 milioien ehuneko 78, hain zuzen ere).

Kapital-transferentziengatiko gastua

Kapital-transferentziengatiko gastua 15,72 milioikoa zen 2020ko abenduaren 31n. Hona hemen xehakaturik kontzeptu ekonomikoaren arabera:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak	Guztizko ABGen ehunekoa
Kapital-transf. toki entitateei	13.499.999	86
Kapital-transf. irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuei	2.215.222	14
Guztira, oro har	15.715.221	100

Kopuru osoaren ehuneko 86 (13,50 milioi) toki entitateentzat izan zen, tokiko ekonomia bultzatzeko aparteko funtsa banatu baitzen hainbat arlotan inbertsioak egiteko: efizientzia energetikoa, zuzkiduren egokitzapena, banda zabaleko konektibitatea eta abar. Goian aipatutako 13/2020 Foru Legeak onetsi zuen funts hori. Gastuaren gainerako ehuneko 14a, gehienbat, zentro teknologikoen bideragarritasuna bermatzera bideratu zen (1,1 milioi) eta SARS-CoV-2 birusa eta COVID-19 gaitza ikertzeko proiektuetara (milioi bat).

Inbertsioetan egindako gastua

Inbertsioetan egindako gastua 14,83 milioikoa zen 2020ko abenduaren 31n. Hona hemen xehakaturik kontzeptu ekonomikoaren arabera:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak	Guztizko ABGen ehunekoa
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	6.990.988	47
Ekipamendu medikoak	2.986.545	20
Eraikinak	1.939.131	13
Beste altzari eta ekipamendu batzuk	1.827.088	12
Aplikazio informatikoak	574.607	4
Instalazioak	252.663	2
Bulegoko ekipamendu eta altzariak	159.567	1
Material teknikoa	52.874	0,5
Ibilgetu ez-materiala	45.044	0,5
Guztira, oro har	14.828.507	100

Kopuru osoaren ehuneko 47 (6,99 milioi) informazioa prozesatzeko ekipamenduak erostera bideratu zen, ehuneko 20 (2,99 milioi) ekipamendu medikoetara, eta ehuneko 13 (1,94 milioi) eraikinetako obretara.

Finantza-aktiboetan eta -interesetan egindako gastuak

Finantza-aktiboetan egindako gastua zazpi milioikoa zen 2020ko abenduaren 31n. Diru kopuru hori NEKPren kapitala handitzeko erabili zen, gero NEKPk bazkideen ekarpena egin ziezaion Sociedad de Desarrollo de Navarra SLUri (SODENA), eta azken horrek maileguak eman enpresei, COVID-19ak sortutako krisia kontuan izanda.

Bestalde, finantza-gastuak 78.275 eurokoak izan ziren, maileguen eta kreditu-eragiketen interesen ondoriozkoak.

IV.1.2. COVID-19AREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO DIRU-SARRERAK

Gastu horiei aurre egiteko, COVID-19aren kudeaketarekin lotutako diru-sarrerak hauek baliatu zituen NFKAk:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak 2020-12-31n	AEGen guztizkoaren ehunekoa
3. Tasak eta prezio publikoak	23.845	-
4. Transferentzia arruntak	186.392.563	99,5
7. Kapital-transferentziak	956.807	0,5
Guztira	187.373.215	100

COVID-19 partidetan izandako diru-sarrera ia guztiak Estatutik etorritako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak dira, 187,16 milioi, guztira; zenbateko horretatik, garrantzi handieneko diru-sarrera 174,82 milioi eurokoa da eta ekainaren 16ko 22/2020 Errege Lege-dekretuak autonomia-erkidegoentzat sortutako funtsetik dator, Nafarroak diru kopuru hori jaso baitzuen abenduaren 31ra arte. Itzuli behar ez den funtsa da, eta COVID-19ak sortutako krisiaren ondoriozko aurrekontu-beharrak finantzatzea du helburu.

Transferentzia arruntan 4. kapituluan partikularren dohaintzak ere badaude, eta guztira 188.993 eurokoak dira.

Aurrekoaz gain, NFKAk zorpetze eragiketak egin zituen berariaz kontabilizatuta ez daudenak COVID-19 partidetan, ez direlako osasun krisiari soil-soilik lotutako eragiketak. Zehazki, NFKA-ren zorpetze-eragiketek 2020ko martxotik abendura bitartean 648,37 milioi egin zuten, eta bali-teke diru kopuru horren zati bat zerikusia izatea COVID-19aren kudeaketarekin, baina ezin dugu zehaztu zenbat izan den.

IV.2. LEGEZKOTASUNARI BURUZKO AUDITORIA

Legezketasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Autonomoentzako laguntzen eskatzaileek 24,03 milioi jaso zituzten guztira. Deialdian ezarritakoarekin bat, beren ahalmen ekonomikoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu zuten, ezin baitzituen gainditu muga jakin batzuk, eskatutako diru kopuruaren eta familia unitatearen osakeraren araberakoak. Baldintza horiek bete behar baziren ere, ez zen inolako mekanismorik antolatuta gerora egiaztatzea ahal izateko. Erantzukizunpeko adierazpena laguntzak bizkorrago izapidetzeko mekanismo ona da, baina ez du ordeztu behar geroko egiaztapen bat egitea baldintzak betetzen diren jakiteko.

Horri buruz esan behar dugu ostalaritzarako eta turismorako *a posteriori* antolatuta diren laguntzetan alderdi horiek hobetu egin direla eta onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatze mekanismoak aurreikusitakoak direla.

Legeriaren betetzeari buruzko iritzia

Gure ustez, "Legezketasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin" ataleko paragrafoan deskribatu ditugun egitateen eraginengatik ez bada eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, 2020ko martxotik abendura bitartean COVID-19arekin lotuta egindako langile-kontratazioa eta ondasun arrunt eta zerbitzuena, inbertsioak eta emandako dirulaguntzak bat dato, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeko zaion araudiarekin.

Beste oharpen batzuk, emandako iritzian eraginik ez dutenak

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar batzuk eta aurkitutako gorabeherak gehitu ditugu, emandako iritzian eraginik ez dutenak, eta gure ustez interesgarri gerta daitezkeenak COVID-19aren kudeaketa hobetzeko:

- PAGNAk bere gain hartu zuen 2020ko abenduaren 31n guztira 2,15 milioikoa zen gastua, aparteko gastutzat, COVID-19ak zentro itunduetan eragindako gainkostuaren zati gisa, zerbitzuak ematen jarraituko zutela bermatzeko; kostuaren gehikuntza horrek zerikusia du errefortzuko langileen kontratazioarekin, enpresako langileen ohiko absentismoa gainditzen duten bajeekin, kutsatzeen prebentzioarako gastuekin eta desokupazioak diru-sarreretan eragindako beherakadarekin.

PAGNAk aldatu egin zituen zentro soziosanitarioekiko kontratuak, eta erabaki zuen zentro bakoitzari berak egindako gastuak ordaintzea; banakako zenbateko horien kalkulua zentroek igorritako informazioa erabiliz kalkulatu da, Excel fitxategi banatan beren aparteko gastuei buruz jartzen duten informazioarekin, hain zuzen ere; datu horiekin PAGNAk kalkulu konplexu eta nekettsu batzuk egiten ditu aparteko gastu gisa bere gain hartuko duen zenbatekoari buruz. Kalkulu prozesu horrek denbora luze samarra behar duen arren, ez da egiaztatu ea zuzena den zentroek langileria buruz igorritako hasierako informazioa, 1,18 milioiko zenbatekoa ematen duena. Hori dela-eta, PAGNAk gastu horien justifikazioa eskatzeko asmoa duela aipatu behar dugu.

- Ondoko taulan pazienteak artatzeko eta oheak gordetzeko gastua ageri da Nafarroako Unibertsitateko Klinikari, San Juan de Dios Ospitalean eta San Miguel Klinikari, 2020ko martxotik ekainera eta uztailetik abendura:

	Pazienteak artatzeko gastua	Oheak gordetzeko gastua
2020ko martxoa-ekaina	2.790.689	1.997.878
2020ko uztaila-abendua	2.820.494	255.753
2020ko martxoa-abendua, guztira	5.611.183	2.253.631

Guztira 7,86 milioi gastatu ziren, horietatik ehuneko 71 pazienteak artatzeko eta gainerako ehuneko 29a oheak gordetzeko; ohe erabilgarrien kontratazioaren kudeaketa nabarmen hobetu zen denbora igaro ahala, eta txosten hau egin den garaian egiazko beharrezanaren epe laburreko aurreikuspenak egiten ari ziren pandemiaren eboluzioaren arabera.

Gastu horretatik ehuneko 60 Nafarroako Unibertsitateko Klinikari bideratu zen (4,7 milioi), ehuneko 29 San Juan de Dios Ospitalera (2,3 milioi) eta ehuneko 11 San Miguel Klinikari (0,8 milioi).

- FPP2 maskaren hornidura hornitzaile batekin egin zen, larrialdiko prozeduraz, O-NOZen eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat zela medio; hitzarmenean adierazi zen O-NOZen ardura zela kontratazio prozedura kudeatzea, kontratuaren formalizazioa izan ezik, hori entitate bakoitzak egin behar baitzuen. Hornidura, zehazki, O-NOZi eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari egin zitzaion (hitzarmenaren arabera, bigarrenak onartu egin behar zuen O-NOZen jarduketan ondorioz adjudikazioa jasoko zuen enpresa), eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak erosketak zentralizatu zuen gainerako departamentuak hornitzeko. Ez dago jasorik kontratua formalizatu izana hornitzailearekin eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin.

Bestalde, O-NOZen kontu-hartzailera delegatuak eragozpen-ohar etengarri bat egin zuen hornidura horri zegozkion fakturen ordaintzari buruz, eta O-NOZek desadostasuna adierazi zuen. Txosten hau idazteko garaian, Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusia desadostasun horren jakitun da, eta ebatzi egin behar du.

- NFKAk 2020ko martxotik urrira arteko aldiari buruz emandako informazioaren arabera, kontratuak eteteagatik kalte-ordainen ondorioz 762.820 euroko gastua egin zen, honela xehakaturata:

Departamentua	Etendako kontratua	Zenbatekoa
Ekonomia eta Ogasuna	Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakunde autonomoen erabilera administratiboko egoitzak garbitzeko zerbitzua	23.636
	PFEZaren aitortpenak inprimatu eta gutun-azaletan sartzea	Finkatzeko dago
Hezkuntza	Hainbat hezkuntza-programa	30.184
	Eskualdeko eskola-jantokien zerbitzua ikastetxe publikoetan, 2019-2020 ikasturterako	440.980
	Eskola-garraioaren zerbitzua ikastetxe publikoetan, 2019-2020 ikasturterako	45.983
Eskubide Sozialak	Eguneko zentroyen kudeaketa	202.455
Kultura eta Kirola	Kirolaren Etxearen kudeaketa eta oinarrizko mantentze-lanak	1.141
	Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko lan lagungarriak	18.441
Guztira		762.820

- Refena kokatuta dagoen finkaren erabilera lagata dago 2009az geroztik. Izan ere, Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra SAK Recintos Feriales de Navarra SArI eta Eventos Zunzarren SLri laga zien erabilera, azokak eta bestelako ekitaldiak antolatzeko.

COVID-19ak eragindako osasun krisia zela-eta, NFKAk beharrezkotzat jo zuen presaz eta behala baliatzea Refena kokatuta dagoen finka eta higiezin hori kudeatzen duen enpresaren hainbat altzari eta tresna, 2020ko martxoaren 15etik 2021eko martxoaren 31ra bitartean.

NFKAk finka okupatze horrek bi gastu-espeditente eragin ditu 2021ean, biak ere 2020ko gertaerekin lotuak. Hona hemen xehetasunak:

a) O-NOZek 2020ko urriaren 8an proposatu zuen altzarien erabilerari zegozkion bost faktura ordaintzea —guztira 137.393 euro 2020ko martxotik irailera bitarteko aldirako— aipatu finken erabilera laga zitzaizen enpresei. Kontu-hartzailletza Nagusiak horri buruzko txostena eman zuen, non egokitzen jotzen zen espeditentea izapidetzea, larrialdiko espeditentea zela iritzita, baina inguruabar hauek ere aipatzen ziren: *“...txostenean aztergai den espeditentean falta dira kontratuen xedeen azalpena, kontratuen exekuzioaren unea, iraupena, prezioaren xehakapena —merkatuarekin bat datorren aztertu ahal izateko—, eta halaber egiaztapen juridiko eta tekniko arrazoitua eta sendoa, erakutsi behar duena halako kasuan gaudela egindako jarduketa guztietan...”*; *“...ez dakigu zein altzari eta tresna zeuden instalazioan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak higiezina okupatu zuenean (kategoria horretan sartu behar dira bai SPRINek erabilera lagapen-hartzaileari laga zionean higiezinaren zeudenak, baita lagapen-hartzaileak berriaz azoka-jarduera garatzeko erosi zituenak ere), eta zein gehitu ziren gerora, Nafarroako Osasun Zerbitzuak hala eskaturik, ez baitago inbentario batean jasorik zer ondasun zeuden higiezinaren hura okupatu zenean...”*.

Horrek guztiak berekin ekarri zuen eragozpen-ohar etengarri bat egitea 2020ko urriaren 14an.

2020ko urriaren 20an O-NOZek txostena eman zuen Kontu-hartzailletza Nagusiaren txostenarekin ados ez zegoela adierazteko, eta ondorioz eragozpen-oharra Nafarroako Gobernuari aurkeztu zitzaion.

2020ko urriaren 21ean Nafarroako Gobernuak desadostasuna ebatzi zuen O-NOZen alde, eta O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bidez larrialdiko espeditenteko jarduketak onetsi ziren, bai eta adierazitako gastuak aitortu ere.

Ondoren, 2021ean, 2020ko urriko, azaroko eta abenduko gastuak onetsi ziren eta 2021eko aurrekontuan kontabilizatu ziren. Guztira 68.622 euroko gastuak ziren.

b) Bestalde, O-NOZek larrialdiagatik gastua baimentzeko espeditente bat izapidetu zuen, 2020ko martxotik 2021eko martxora bitartean higiezinaren erabilerak eta hornidurek eragindako gastuarengatik kalte-ordaina emateko, guztira 187.030 euro (163.662 euro erabileragatik eta 23.368 euro hornidurengatik). Gastu horiek 2021eko aurrekontuari egotziko zitzaizkiola adierazi zen.

Diru kopuru horretatik 142.143 euro 2020ko gastuak lirateke, baina ezin izan ziren kontabilizatu ekitaldi horretako aurrekontuan, zegozkien administrazio egintzak gauzatu gabe zeudelako.

Adierazi behar dugu, gainera, gastu horiek baimendu eta aitortzen dituen ebazpenak dioenez, kalte-ordain hori emateak ez duela ezertan eragotziko beste kalte eta galera batzuen ordaina ere ematea, halakorik izanez gero.

IV.3. ERAGINKORTASUNARI ETA EFIZIENTZIARI BURUZKO AUDITORIA

2020ko ekainean, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak O-NOZ premiatu zuen COVID-19ak jotako pazienteen prozesu eta tratamenduen kostuaren kalkulu analitikoa egin zezan, eta emaitzak kontuan har zitzan osasun zentro itunduekin tarifak ezartzeko.

Eskaera horri erantzunez, O-NOZeko Kostuaren Kontrol eta Analisisirako Zerbitzuak COVID-19dun pazienteen egonaldien batez besteko kostua kalkulatu zuen, ZIUan egon direnak eta egon ez direnak bereizita, 2020ko martxotik 2020ko maiatzera arteko aldirako. Lortutako datuak erabiliz ezarri ziren tarifak, ez zitezen izan O-NOZi paziente horiek artatzea kostatuko litzaiokeena baino handiagoak.

O-NOZek lortutako emaitzak kontuan hartuta, tarifak ezarri ziren batetik Nafarroako Unibertsitateko Klinikarako eta San Miguel Klinikarako eta bestetik San Juan de Dios Ospitalerako, zentro bakoitzera eramaten diren pazienteen tipologiaen arabera. Honako hauek izan ziren tarifak:

Kontzeptua	Zentroa	Zenbatekoa
ZIUko COVID-19 pazientea	Nafarroako Unibertsitateko	40.978 euro pazienteko
Ospitalizazio solairuko COVID-19 pazientea	Klinika eta San Miguel Klinika	4.908 euro pazienteko
Ohea gordetzea		181 euro/oheko/pazienteko
COVID pazienteen egonaldia (1-10 egun)		519,31 euro eguneko
COVID pazienteen egonaldia (11-20 egun)	San Juan de Dios Ospitalea	298,82 euro eguneko
COVID pazienteen egonaldia (21-99.999 egun)		209,60 euro eguneko
COVID pazienteen egonaldia errehabilitazioarekin (11-99.999 egun)		232,94 euro eguneko

Unibertsitateko Kliniketan eta San Miguel Kliniketan, tarifa horiek lauak dira. Alegia, diru kopuru hori ordaintzen da beti, pazienteak ZIUan zenbat egun eman dituen kontuan hartu gabe.

Ondorioztatzen ahal dugu kudeaketa ongi egin zela kasu honetan helburua lortzeko, hau da, hala behar zuten paziente guztiak artatzeko O-NOZen izanen luketen kostua gainditu gabe.

IV.4. 2020KO ABENDUAREN 31TIK AURRERAKO GERTAERAK

Txosten honetan 2020ko martxotik abendura bitarteko aldia hartu dugu aztergai, baina COVID-19ak eragindako osasun krisia ez da amaitu eta ez dakigu noiz arte iraunen duen.

Hala, COVID-19aren kudeaketan 28,40 milioi gastatu dira 2021eko urtarriletik martxora bitartean. Hona hemen xehetasunak:

Gastu-kapitulua	Gastu bateratuak	Aitortutako betebeharrak	ABGen ehunekoa guztira
1. Langileria	49.458.236	16.080.948	57
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	52.172.342	7.875.891	28
3. Transferentzia arruntak	48.154.674	2.161.811	7
6. Inbertsioak	4.3554.892	2.280.755	8
7. Kapital-transferentziak	15.010	0	0
8. Finantza-aktiboak	240.010	0	0
Guztira	154.395.164	28.399.405	100

Gastuaren ehuneko 57 langilerian egin zen (16,08 milioi); ehuneko 28, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan (7,88 milioi); ehuneko 8, inbertsioetan (2,28 milioi); eta gainerako ehuneko zazpia, transferentzia arruntetan (2,16 milioi).

Gastuaren ehuneko 65 Osasun Departamentuari dagokio (18,60 milioi); ehuneko 27, Hezkuntza Departamentuari (7,69 milioi); eta ehuneko 4, Eskubide Sozialetako Departamentuari (1,23 milioi).

Bestalde, NFKAk aldi horretan 735 kontratu egin ditu 563 pertsonarekin; horietatik ehuneko 50 Hezkuntza Departamentuak egin ditu (365), ehuneko 42 O-NOZek (309), eta gainerako ehuneko zortzia PAGNAk (61).

Diru-sarrerei dagokienez, aurreikusita dago NFKAk Estatutik eta Europatik funtsak jasotzea. Txosten hau idazteko garaian oraindik ez dakigu zenbat.

IV.5. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

2020ko martxoan Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia izendatu zuen urte horretako urtarrilean deklaraturako osasun publikoko larrialdia, COVID-19ak eragindakoa. Izan ere, gaitzaren hedapena herrialdeetako osasun publikoaren kontrako arriskua zen, eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen zuen.

Ez zegoen inola ere jakiterik nola eboluzionatuko zuen inoiz ezagutu gabeko osasun krisiak, eta NFKAk laster batean aparteko eta presako neurri sail bat antolatu behar izan zuen osasun publikoko arrazoiengatik, pertsonak artatzeari lehentasuna emanaz ororen gainetik.

Neurri horiek ezartzeak garrantzizko gastua eragin zuen, 2020ko martxotik 2020ko abendura bitartean 225 milioi ingurukoa, eta 3.407 pertsona kontratatu behar izan ziren. NFKAk 187,1 milioi jaso zituen Estatutik. Osasun krisia ez da oraindik amaitu, eta jarraitzen du baliabide publiko ugari bereganatzen. Martxora arte 28,40 milioiko gastua kontabilizatu da 2021erako aurrekontuan.

Aztertu dugu ea legeria betetzen duten langileen kontratuek, ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuek eta inbertsioek, bai eta 2020ko martxotik abendura bitartean izapidetutako dirulaguntzek ere. Ondorioztatu dugu prozedurak aplikatzekoak zaizkien arauei jarraituz bete direla, salbuespenak salbuespen. Araudi hori NFKAk aurre egin beharreko aparteko egoera kontuan hartuz onetsi zen. Eraginkortasunari eta efizientziari dagokienez, osasun itunen kasua besterik ezin izan da aztertu, eta ondorioztatzen ahal dugu kudeaketa onaren printzipioak aplikatu direla.

Kontuen Ganberaren ustez, txosten honen datara arte NFKAk zentzuz kudeatu du osasun krisia langileen kontratazioari, obrei, horniduren erosketari eta dirulaguntzei dagokienez; alabaina, COVID-19ak eragindako osasun, gizarte eta ekonomia krisia ez da amaitu oraindik eta NFKAk jarraitu beharko du aurrekontuan eragina eta ondorioak izanen dituzten neurriak hartzen.

Atera ditugun konklusioak kontuan hartuz, bada, aholku hauek ematen ditugu:

- *Laguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozedura bideragarriak antolatzea.*
- *PAGNAri igorritako ohiz kanpoko langileria-gastuen justifikazioa egiaztatzea zentro sozio-sanitarioen lagin batean.*
- *Larrialdia dela-eta izapidetu diren kontratazio-espediente guztiak formalizatzea eta Kontratazioaren Atarian argitaratzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2021eko apirilaren 16an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. COVID-19AREN KUDEAKETARI NAFARROAN APLIKATU BEHARREKO OINARIZKO ARAU-ESPARRUA

- 347E/2017 Foru Agindua, martxoaren 23koa, Osasuneko kontseilariak emana. Horren bidez onesten dira aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetarako.
- 9/2020 Jarraibidea, 2020ko martxoaren 13koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, COVID-19aren agerraldia dela-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lantokietan hartu beharreko neurriei buruzkoa.
- SND/232/2020 Agindua, martxoaren 15ekoa, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko giza baliabideei eta bitartekoei buruzko neurriak ezartzen dituena.
- 1/2020 Foru Lege-dekretua, martxoaren 18koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 6/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 284E/2020 Ebazpena, apirilaren 6koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, COVID-19 produktibitate-osagarria zehazten duena, lanaldia luzatzeagatik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileentzat, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta.
- 10/2020 Foru Legea, apirilaren 8koa, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duena.
- 37/2020 Foru Agindua, apirilaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritu nahi duten izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituena.
- 3/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 15ekoa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 10/2020 Jarraibidea, apirilaren 23koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, ondorioz gabe uzten duena Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 13ko 9/2020 Jarraibidearen 2., 3., 4. eta 6. apartatuak; jarraibide hori COVID-19aren agerraldia dela-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lantokietan hartu beharreko neurriei buruzkoa da.
- 4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 17/2020 Foru Agindua, maiatzaren 13koa, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak emana, zeinaren bidez ezartzen baita langile autonomoei laguntzak emateko prozedura, koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuan araututakoa betez.
- 5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 22/2020 Errege Lege-dekretua, ekainaren 16koa, COVID-19 Funtsaren sorrera arautu eta haren banaketari eta igorpenari buruzko arauak ezartzen dituena.
- 6/2020 Foru Lege-dekretua, ekainaren 17koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 13/2020 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzekoa, Nafarroako Toki Ogasunen parte-hartzearen funtsaren kargura, COVID-

19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartu behar izan diren ohiz kanpoko neurri urgenteengatik toki entitateek dituzten beharrei erantzuteko.

- 7/2020 Foru Lege-dekretua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.
- 8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboan igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko.
- 75/2020 Foru Agindua, abuztuaren 31koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, hezkuntza jarduera presentziala aurrera eramateko prebentzio eta antolaketa protokoloa onesten duena 2020-2021 ikasturterako.
- 14/2020 Foru Legea, irailaren 1ekoa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.
- 9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea.
- 29/2020 Errege Lege-dekretua, irailaren 29koa, administrazio publikoetako telelanaren arloan eta Osasun Sistema Nazionalerako giza baliabideen arloan presako neurriak ezartzen dituen COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko.

Araua	Data	COVID-19aren ondorioak arintzeko ohiz kanpoko neurriekin lotura duten alderdiak
347E/2017 Foru Agindua	Martxoaren 23a	Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoen zentro eta establezimenduetarako
9/2020 Jarrabidea	Martxoaren 13a	O-NOZeko lantokietako langileentzako neurriak, COVID-19a dela-eta
SND/232/2020 Agindua	Martxoaren 15a	COVID-19aren kudeaketarako giza baliabideak eta bitartekoak
1/2020 FLD	Martxoaren 18a	Langileria (zerbitzuen prestazioa, aldi baterako langileak kontratatzeko zerrendak; sindikalak, erretiratuak etab. lanera itzultzea) Gizarte zerbitzuak (etxeko zaintzaileen kontratazioa, landa eremuetako kontratazioa) Adm. Publikoaren kudeaketa (kontratazioa eta mandatuak, kontabilizazioa eta aurrekontu-kudeaketa, dirulaguntzak, etab.) Ekonomiko-fiskalak (COVID-19ak eragindako gastuetarako funtsa)
2/2020 FLD	Martxoaren 25a	Adm. Publikoaren kudeaketa (kontratazioa, itun sozialak, Eskubide Sozialetako eta Migrazio Politiketako eta Justiziako departamentuen dirulaguntzak, behin-behineko zentro soziosanitarioak, zentro eta establezimendu pribatuak eta mutuak ballatzea, bai eta haien langileak ere, genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-baliabideetako gehieneko egonaldiak) Etxebizitza (bizigarritasun-zedulen indarraia eta obra amaierako epeak, etxebizitza babestuen sustapena, etxebizitzarako eskubide subjektiboa, etab.) Zergak (tributu arloko epeak etetea, zerga zorrak geroraztea salbuespenez)
6/2020 FL	Apirilaren 6a	Langileria (zerbitzuen prestazioa, aldi baterako langileak kontratatzeko zerrendak; sindikalak, erretiratuak etab. lanera itzultzea) Gizarte zerbitzuak (etxeko zaintzaileen kontratazioa, landa eremuetako kontratazioa) Adm. Publikoaren kudeaketa (kontratazioa eta mandatuak, kontabilizazioa eta aurrekontu-kudeaketa, dirulaguntzak, etab.) Ekonomia eta zergak (COVID-19 gastuetarako funtsa eta toki entitateen COVID-19 gastuetarako funts berezia)
7/2020 FL	Apirilaren 6a	Adm. Publikoaren kudeaketa (kontratazioa, itun sozialak, Eskubide Sozialetako eta Migrazio Politiketako eta Justiziako departamentuen dirulaguntzak, behin-behineko zentro soziosanitarioak, zentro eta establezimendu pribatuak eta mutuak eta haien langileak ballatzea, gehieneko egonaldiak genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-baliabideetan eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako behin-behineko harrera-baliabideetan) Etxebizitza (bizigarritasun-zedulen indarraia eta obra amaierako epeak, etxebizitza babestuen sustapena, etxebizitzarako eskubide subjektiboa, etab.) Zergak (tributu arloko epeak etetea, udal tasak eta prezio publikoak)
284E/2020 Ebazpena	Apirilaren 6a	COVID-19 produktibitate-osagarria zehaztea O-NOZeko langileentzat
8/2020 FLD	Apirilaren 8a	Kreditu-gehigarria COVID-19 neurriei lotutako beharretarako
9/2020 FLD	Apirilaren 8a	Kreditu-gehigarria COVID-19 neurriei lotutako beharretarako

Araua	Data	COVID-19aren ondorioak arintzeko ohiz kanpoko neurriekin lotura duten alderdiak
10/2020 FL	Apirilaren 8a	2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 5/2020 Foru Legea aldatzea
37/2020 Foru Agindua	Apirilaren 8a	Aldi baterako kontratazioaren bidez Hezkuntza Departamentutako lanpostuak betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak Langile autonomoentzako laguntzak
3/2020 FLD (2020ko apirilaren 27ko NAOn baliozkotua)	Apirilaren 15a	Adm. Publikoaren kudeaketa (COVID-19 hornidura eta ekipamenduen kontratazioaren prezioa ordaintzea, COVID-19 dohaintzak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako bigarren ordaintza toki entitateei, COVID-19a dela-eta gizarte larrialdiko laguntzak ordaintzea toki entitateei, osasun laguntza antolatzeko neurriak zahar etxeetan, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan, egoitza psikogeriatrikoetan eta parekoetan) COVID-19ari buruzko ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatzea
10/2020 Jarraibidea	Apirilaren 23a	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Nafarroako prebentzio zerbitzuak koordinatzea
4/2020 FLD	Apirilaren 29a	Indarrak gabe uzten du 9/2020 Jarraibidearen zati bat Zergak (jokoaren gaineko tributuak, saltoki handien gaineko zerga, oinordeketa eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren epeak eta sarrera, ohiko eixebezitan egindako berrinbertsioagaitiko salbuespenaren epea, enplegua sortzeagaitiko kenkarria, etab.) Kooperatiben hezkuntza- eta sustapen-funtsaren erabilera aldi baterako malguitzea COVID-19aren eragina arintzeko
5/2020 FLD	Maiatzaren 20a	Eixebezitza (bizigarritasun-zedulen indaraldia, eixebeztzarako eskubide subjektiboa eta eixebezitza babestuetako maizterrentzako dirulaguntzak)
22/2020 ELD	Ekainaren 16a	Kontratazio publikoa (neurri osagarriak, interpretazio artistikoko eta ikusizunetako kontratu publiko etenak edo suntsiaraziak) COVID-19 funtsaren sorrera eta haren banaketari eta igorpenari buruzko arauak
6/2020 FLD	Ekainaren 17a	Errepideko hiriarteko garratxo publiko erregularreko zerbitzuak esleitzeko kontratuak (ohiz kanpoko konpentsazio ekonomikoaren kalkulua eta prozedura) Gizarte zerbitzuak (errenta bermatuaren ordaintza etetea kasu jakin batzuetan) Lurraldearen antolamendua (salbuespeneko baimena, energia eolikoa sortzeko sistemak eta husteko linea elektrikoak instalatzeko)
13/2020 FL	Uztailaren 1a	Tributuak (sozietateen gaineko zergaren aurkezpena, fundazioen kontuak aurkezteko epea, argindarraren, gasaren eta petroliotik eratorritako produktuen fakturak etetea, doako aseguru kolektiboa osasun-langileentzat, zenbait pertsona zaintzeagatik Gizarte Segurantzari ordaintutako kuoten kenkarria, etab.) 25 milioiko aparteko kreditua, toki ogasunen parte-hartzearen funtsaren kargura, COVID-19aren ondorioz toki entitateek dituzten beharretarako
7/2020 FLD	Uztailaren 22a	Gaueko aisialdia (ordutegi mugak, jarduerak, ospakizunak, mahai bakoitzeko edo mahai multzo bakoitzeko gehieneko okupazioak)

Araua	Data	COVID-19aren ondorioak arintzeko ohiz kanpoko neurriekin lotura duten alderdiak
8/2020 FLD	Abuztuaren 17a	Gaueko aisialdia, ostalaritza eta jatetxeak, alkohol kontsumoa eta elkarte gastronomikoen eta penen jarduera Egoitzak diren zentro soziosanitarioak (PCR probak egitea, bisitak eta egoiliarren irteerak) Jendetza biltzen duten ekitaldi eta jarduerak Osasun arloa (PCR bidezko baheketak berariazko taldeetan, eta tabakoaren eta parekoen kontsumoa) Langileria (aparteko orduak)
35/2020 FA	Abuztuaren 31	Jarduketa-protokoloa 2020-2021 ikasturterako
14/2020 FL	Irailaren 1a	Nafarroako irakaskuntza publikoko eta itunduko irakasleen oinarritzko lan baldintzak
9/2020 FLD	Irailaren 16a	COVID-19 neurriak ez betetzeagatiko arau-hauste eta zehapenen araubidea, zehapen prozedura
29/2020 ELD	Irailaren 29a	Telelanaren eta giza ballabideen arloetako presako neurriak Osasun Sistema Nazionallean

